

# EDONORK BALIO ZIDAK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**CARMEN:** Begira, zerbait kontatuko diat -hikatu hazaket, ezta?-. Nik beti nahi izan diat aktore izan. Zinemakoa, antzerkikoa, edozerko aktorea. Aktorea. Eta uste diat ondo-ondo egiten diadala, ona nauala. Duela... hamar urte proba batera joan ninduan, casting batera. *(Azaltzen du)* Nire proba egin nian. Eta joan ninduan. Hurrengo egunean, filmaren zuzendariak deitzen zidak. Eta ni banoak. Eta esan zidak gustatu natzaioala, ona nauala uste diala, bere filmean primeran moldatuko ninduala. Baina, era berean, esaten zidak ni bezain onak dituan berrogeita hamar bat neska zaudeala, bere filmean sartuko lituzkeenak. Eta esaten zidak -halaxe zuzenean- berarekin oheratuz gero -han bertan, une horretan- papera niri ematen zidaala. Onartuko izan banu, orain ez nindukek hemen egongo. Film horrek izar bihurtu egingo nindian, ziur nagok. Baina ezetz esan nioan. Ez nian berarekin oheratu nahi izan. Ez pentsa diskurtso feminista botatzen ari nauanik, errebindikatiboa, txor-txor-txor. Ez. Gizon hori errespetatzen diat. Zerbait proposatu zidaan zerbaiten truke. Askatasunez aukeratu nian. Ez zidaan interesatzen proposatzen zidaan hori. Iritsi ninduan lekutik joan ninduan. Ez diat kritikatu. Filma berea zuan. Horren ondoren, lan egiten nian enpresan gora egin eta enpresa berri bat sortzeko aukera sortu zuan, neurea. Ez zuan erraza izan. Ez eta segurua ere. Diru guztia arriskatu nian. Eta bulego-materialeko enpresa txiki hura gaur ikusten duan honetan bihurtu zuan. Nola esan didak deitzen haizela? Manuel? Manuel. Berrogeita hamar hautagai ditiat biltegiko morroi lanpostu horretarako. Edonork balio zidak. Besteengandik bereizteko zerbait egiteko prest hago, Manuel? Libreki.

**OHARRAK:** *Bakarrizketa bat entzuten/ikusten hasterakoan entzuleak/ikusleak jakin nahi duen lehenengo gauza hizketan ari den pertsonaiaren nortasuna da. Nor ari da hizketan? Gero, pertsonaia horren inguruko gorabeherak jakin nahi ditu. Norekin ari da hizketan? Zertaz ari da? Zer egoeratan dago? Zer arazoirengatik hitz egiten du?, etab. (1) Hasiara batean, bakarrizketa honetako "Nik beti nahi izan diat aktore izan" horrek iradokitzen du **CARMEN** casting bat egiteko zorian dagoen aktorea dela. Hitz egin ahala, ikusten dugu ezetz. (2) Ez dagoela casting bat egitear. **CARMEN**ek casting batean izandako esperientzia kontatzen dio norbaiti. Gaur egun jende askok irain, abusu edo eraso sexistatzat hartuko lukeen esperientzia. (3)*

Ele txera  
Hondoluzak zabalduz



# EDONORK BALIO ZIDAK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Baina **CARMEN**ek uste du castingean gertatu zitzaiona ez zela izan eraso sexista, ez abusua, ezta umiliatzeko modu fina ere. Berak baztertutako eskaintza bat izan zen. (4) **CARMEN** ez da aktorea, enpresaburua da. Eta une horretan bertan, bere enpresan lanpostu bat betetzeko hautagai batekin hitz egiten ari da, eta hark, koherentzia miresgarria erabiliz, (5) bere garaian zinema-zuzendariak egin zion eskaintzaren antzeko eskaintza egiten dio.

Bakarrizketak ez du epaitzen. Haren grazia ikuslearen uste okerrarekin jolastea da; izan ere, 4 aldiz, eszena oker ulertuko du ziurrenik (monologoaren faseak parentesi artean zerrendatuta daude aurreko paragrafoan). Sorpresa batekin amaitzeko (5). Bakoitzak gaiari buruz pentsatzen duena alde batera utzita, **CARMEN** guztiz koherentea dela ikusi behar da. Eta bere buruaz seguru. Zer nahi du **CARMEN**ek? Diskurtso horren bidez, aurrean duen mutilarekin enpatia eduki nahi du. Eta sexua nahi du, bai. Mutilak berarekin sexu izatea libreki leku ematea nahi du.

Ele txera  
munduarek zabalduz

